# <u>FUNTZEZKO BALIABIDEAK</u>

Hasteko, beraien egoeraren analisia egingo dugu eta espezialista bat esleituko diogu. Horrez gain, aplikazio barruan atal desberdin batzuk jarri ditugu. Espezialistak, 4go mailako unibertsitateko psikologoak izango dira eta beraiek gure bezeroeen ardura parte bat hartuko dute.
Whatsapp talde bat sortuko dugu, beraien artean aholkuak emateko eta zuri entzuteko prest eta empatizatzen duten jendenarekin hitz egiteko. Horrez gain, talde hori erabili ahal dute beraien artean geratzeko eta harremanak sustatzeko.

Gainera, liburuak eta informazio gehiago eukiko dituzte eskura. Liburuak autolaguntzakoak izango dira gehienak eta astean behin liburu bat argitaratuko dugu.
Kuku, gure enpresak, beste edozein bezala, **egitasmoa** aurrera eramateko zenbait elementu behar ditu. Enpresaren etorkizunean ahalik eta **etekin** gehien izateko - baliabideak beharrezkoak dira. Gure xedea ez da irabazi ekonomiko asko izatea baizik eta jendeak gure aplikazioarekin **hobeto sentitzea**, hau da, onartuta eta lasaituta sentitzea da. Funtsezko baliabideekin bezeroen **kopurua handitu** nahi dugu, gure proiektuaren mezua haiei ailegatzea, gure helburua, haiekin harreman osasunak izatea eta proiektua ateratzeko diru-sarrera egokiak eta nahikoak lortzea izango da.

Proiektu honekin etengabeko formakuntzan ibiliko gara ikasketa sakonak eginez.

Gure bezeroen beharrak asetzeko langile egokiak aukeratzea ezinbestekoa da. Aplikazioa aurrera eramateko ere dirua lortzeko metodoak jakitea garrantzitsua da. Horregatik, gure negozio ideian garrantzitsuak diren baliabideak helburu bakarrarekin azalduko ditugu.

Hasteko, **giza-baliabideak** aplikazioaren motorra izan dira: **Psikologoak.** Psikologo ezberdinak, edozein gaixotasun mentaletan espezializatuta daudenak eskainiko dizkiegu. Bezeroen nahien arabera gutxiago edo gehiago izango ditugu. Aurrez komentatu dugun bezala, , Euskal Herriko Psikologia unibertsitateetatik aukeratutako **etorkizuneko psikologoak izango dira (4. mailako ikasleak).** Praktiketan daudenez, haiekin, begirale edo **espezialista** bat egongo da.

Hala ere, aplikazioa sortzeko informatiko bat behar dugu, non kasu honetan gure kidea den Paula daukagun. Kuku aplikazioa diseinatzen eta bere funtzionamenduaz arduratuko da, baita chat ezberdinen kontrolaz ere. Bestalde, antolatuko ditugun hitzaldietako arduradunak gu izango gara, lankide guztiak elkarlanean.

Bestalde, baliabide fisikoen -haientzako ordenagailuak ere. Gure aplikazioaren beheko eskuineko atalean deiak edota chat-ak izateko ordenagailu bat beharko dute eta guk eskainiko diegu.

Gure psikologian espezializatutako langileen baliabide intelektualak bere etorkizuneko lanean eskatuko dioten ezaugarriak izango dira: **entzuteko gaitasuna izatea, enpatia, pasientzia eta konfiantza eta lasaitasuna transmititzea.**

Dirua lortzeko finantza-baliabideetan pentsatzea ez da erraza izan. Gure aplikazioak duen helburua **ia guztiz dohain izatea** eta psikologo onak izatea, hau da, zerbitzu pribatuek eskaintzen dutena publikoki ematea da. Orduan, alde batetik, osakidetzari, udaletxeei, diputazio ezberdinei eta Euskal Jaurlaritzari diru laguntzak eskatuko dizkiegu (gure diru sarrera nagusiak hemendik irtengo dira).

| | |
|---|---|
| ***Baliabide Fisikoak*** | - Ordenagailuak (Bat psikologo bakoitzarako eta beste 5 guretzako) |

| | |
|---|---|
| ***Giza-baliabideak*** | - Psikologoak: arlo bakoitzarako. (ADB: janariarekin erlazionatuta daudenak, gazteentzako, toc, ...). **Bezeroen nahiaren arabera** gehiago edo gutxigo izango ditugu. (entzuteko gaitasuna euki behar dutenak, psikologian espezializatuta daudenak, eta pazientzia dutenak)<br>- Chataren moderadorea.<br>- Aplikazioaren diseinatzaile informatikoa<br>- Guk hizketaldientzako langile bezala |

| | |
|---|---|
| ***Baliabide Intelektualak*** | - Konfiantza eta lasaitasuna transmititzea |

| | |
|---|---|
| | - Pack berezi batzuk dirua lortzeko<br>- Diru laguntzak<br>- Donazioak<br>- Kamiseten salmenta (merchandising-a). |

| | |
|---|---|
| ***Finantza-Baliabideak*** | - Osakidetza<br>- Eusko Jaurlaritza<br>- Udaletzeak<br>- Donazioak<br>- Gure dirua |